

Andoaingo Euskaraldiaren ospakizuna, hurrengo ostiralean

Itxaso Sanchez eta Nago Huitzi kide diren Elektropottotte elektrotzaranga taldeak parte hartuko du Euskaraldiko aurkezpen-jaietan / 8-9

AIURRI

Sanmielak ate-joka

Jaietan aurkezpena egin du Udalak. Bitartean, deialdi ezberdinak martxan dira / 2-3

Bazkardorako lotune berriak Andoaingo Udal Gobernuak kideen arteko talka eragin du / 6-7

Talde izaera sendotzeko ekitaldia antolatzen zuten Leizaran eskubaloitza taldeak / 11

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAI

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

ANDOAIN

IRAILAK 30, OSTIRALA

BOKATA AFARIA

EUSKARALDIA

20:15-21:00
AFARI MUSIKATUA
Bokata afaria.

BEKOPLAZA

EUSKARALDIA ANDOAIN
AURKEZPEN-FESTA

Irailak 30, ostirala
BOKATA AFARIA **5€**

PATATA-TORTILA

Irailak 30, ostirala
BOKATA AFARIA **5€**

XOLOMO-GAZTA

***Txartelak salgai**
Urratsen eta Anaiak tabernan.

BEGANOIA AL ZARA?

Idatzi: andoain@euskaraldia.eus e-postara





Erredakzioa URNIETA

Hemen dira, hiru urteren ostean, herritarrek denbora luzaroan itxaron dituzten San Miel jaiak. Horretarako, buru-belarri aritu dira makina bat eragile Urnietako Udalarekin elkarlanean. Hala, asteartean aurkeztu zuten egitarau “parte-hartzailea, askotarikoa eta integratzailea”, udaletxean egindako prentsaurrekoan. Bertan izan ziren Jorge Segurado alkatea, David Rosco eta Luke Goñi zinegotziak, Luxia Iriondo Kultur teknikaria eta Jabier Salaberria Kantazauneko kidea.

Aurten, Bosko Anitz txarangak botako du txupinazoa, Roscoren hitzetan, “azken 30 urteetan urnietar gazteekin egindako lanagatik”. Izan ere, sorreratik, 1989tik, hain zuzen ere, txaranga, musikalak, txangoak, taillerak eta beste horrenbeste ekinza antolatuta dituzte.

Hari beretik, omenaldientzat tarte handiagoa ere izango da jaiak iraun bitartean: aipamen berezia egin nahi die Urnietako Udalak Arantxa Kortajarena Begiristaini eta Ana Jauregi Garmendiari: 50eko eta 60ko hamarkadetan ateak ireki zituzten bi saltokiren buru izan dira, eta, hasieratik, emakumeek izan dute saltokien ardura. Horrez gain, ohi legez, Alkate Txiki izendatu dituzte Afrika Iborra eta Ruben Agudo urnietarrak. Irailaren 30ean, 4 hilabetetik aurrerako herritarrentzat ekajokoak izango dira, erraldoi eta buruhandien kalejira, pilota-partida, mahai-jokoen txapelketa, diskofesta...

Eskaintza oparoa

Asteazkenetik igandera bitarte, askotariko hitzorduak izango dituzte urnietarrek herriko zen-



Luxia Iriondo Kultura teknikaria, Javier Salaberria Kantazaun taldeko kidea, Luke Goñi Berdintasun zinegotzia, Jorge Segurado alkatea eta David Rosco Jaietako zinegotzia aurtengo jaien aurkezpenean. AIURRI

Sanmielak iristear dira

Irailaren 28tik urriaren bitarte, Sanmielak ospatuko dira Urnietan. Adin eta gustu guztiei begirako egitaraua osatu dute herriko talde eragileek eta Urnietako Udalak.

bait txokotan. Kontzertuei dagokionez, musika-genero anitza izango da Egape Ikastolan, San Juan plazan eta txosnagunean. Besteak beste, Laiotz, Puro Relajo, Lear, The Roristak, Kyxo, Lukiek, Liher eta Xiberoots. Horrez gain, Urnietako lehen gau elektronikoaz disfrutatzen izango da, zenbait DJ-ren eskutik, Egape Ikastolan, irai-

laren 30ean: DJ Katxorro, Dj Maik, Nuria Jump...

Halaber, aurten ere, San Juan plaza agertoki ezin hobea izango da dantza eta antzerki ikuskizunetarako. Era berean, herriko hainbat elkarten antolatutako bazkari eta afari herrikoiak ere ez dira faltako, tartean, Kantazaunek, lehenengoz, kantu bazkaria antolatuta du.

Euskaltzaletasunari arnas

Sorreratik abestia oso maitea izan du Kantazaun taldeak. “Elkar ezagutza handirik gabekoen artean, nork bere aldetik bueltaka generabilkien galdera bati erantzunez” batu ziren herriko hainbat euskaltzale, Jabier Salaberriak adierazi bezala, “abestea gustatzen zaigunez, zergatik ez gara abesteko elkartzen?”.

Bada, galdera horri erantzuna topatu nahian, kulturatik eutsi eta euskarari bultzada emanez darama denbora luze Kantazaunek, abestien bidez, doinuen gozamenarekin xede.

Hori horrela, udazkena gogoz hasteko, bazkaria antolatu du taldeak, Salaberriak prentsaurrekoan azaldu zuenez, elkargune bat sortzeko, baita bazkari baten bueltan “hitz eta kantu txolarte gozo bat gauzatzeko” ere. Bide batez, aukera egokia iruditzen zaie antolatzaileei hilero egiten dituzten kantu-jiretara gonbidatzeko eta horiei begira egiten diren entseguen berri emateko. Bertan, Nerea Elustondo nahiz Aitor Mendiluze bertsolariak eta Imanol Kamio zein Aitor Atxega musikak izango dira. Ildo beretik, herri kirolak eta pilota-partidak San Mielako beste hitzordu garrantzitsu bat izan ohi dira, eta, Iriondok azaldu duenez, aurten, lehen aldiz, emakumeek ere parte hartuko dute pilota jaialdian: lehenengo partidaren, Eneritz Arrieta eta Naroa Agirre Oihana Orbegozo eta Iranzu Echevesteren aurka arituko dira; eta, bigarrenetan, Paul Ojuel eta Aitor Alduntzin, Iker Arretxe eta Imanol Odriozolaren aurka.

Eraserik gabeko festak, errespetuan oinarriturikoak

“San Mielak emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko gozamenarako eta ospakizunerako gunea izan behar dute”, adierazi zuen Luke Goñi berdintasun zinegotziak. Horrela, Urnietako Udalak eraso horien aurrean tolerantziarik ez duela onartuko jakinarazi zuen Goñik: Askatasunean, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako jaiak nahi ditugu”.



SANMIEL JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

 **magale**
IKASTETXEA

 salestarrak
URNIETA





AIURRI

Laguntza, etxera bidean

Jaiak ate joka ditugu, eta Buruntzaldeko Itaia taldeak erasoen aurrean babesaren antolatzea proposatu du. Etxera seguru itzultzeko ekimena abian jarri du: "Gure segurtasuna bermatzera bidean, gauean etxera joan nahi duen orok lagunduta eta seguru joateko aukera izango du".



AIURRI

Herri bazkariko txartelak

Jaiak hurbildu ahala, salgai jarri dituzte herri bazkariko txartelak. 13 euroan Zaldundegin eta Matxon salgai daude. Begetarianoak kontuan hartu dituzte. Aurtengoan, larunbatean izango da herri bazkaria, urriaren lehenean. Poxta Zahar taldeak beste bi hitzordu nagusi antolatu ditu egun berean: elektrotzaranga eta kontzertuak.



Etxeraten afitxa. ETXERAT

Etxerategen deitutako agerraldia, jaien hasieran

Jaien hasieran presoan aldeko ekimena deitu dute. Hilaren 8an hitzordu nagusia dute Donostian

Jon Ander Ubeda URNIETA
Sarek aurtengo jaialdi handiena antolatuko du Donostian, datorren urriaren 8an. "Etxera bidea gertu!" lelopean, egun osoko egitaraua prestatu dute, adin-tarte guzientzat aproposa. Musikiariak, bertsolariak, pailazoak, trikitalariak... Jai handia izango da Illunbekoa. "Euskal presoak etxetik gero eta gertuago daudela eta herritarrok ere etxerategen prozesu hori gauza dadin gertu, prest gaudela" adierazteko antolatu dute ospakizuna. Horren harira, Urnietan agerraldi jendetsua antolatu dute. Irailaren 28an izango da, 18:00tan hasita, Plazido Muxika plazan.



AIURRI

Bertso-saioa Oianumen

Aiurrik eta Poxta Zahar taldeak antolatuta, eta, Euskaraldiaren babesarekin, bertso-afaria izango da ostiral honetan. Iluntzeko 20:00tan hasiko da, eta afalostean Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio kantuan jarriko ditu Amaia Agirre gai-jartzaileak. Aspaldiko ohitura berreskuratu dute, bertso-afariaren antolaketarekin.



AIURRI

"Egape beti dantzan"

Egape dantza taldeak erakustaldia egingo du larunbat honetan, Saroben. 19:00tan hasiko da ikuskizuna. Edu Muruamendiarek zuzenduta, koreografia ugari erakutsiko dituzte. Sarrera doakoa da baina gonbidapena eskuratzea beharrezkoa da. Ohi bezala, leihatilara hurbilduta edo bime.me webgunearen bitartez.



MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotezia

Gora Urnietak!

Errekalde, 14. Urnieta
943 008 304 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com



Auzo bazkaria egin zuten, larunbat eguerdian. Auzoko gurasoak eta familiak elkartzeko hitzordu aproposa. AIURRI

Jaien aurreko asteburuak

"Badatozela Sanmielak!", gogoz biziz dira festazaleak. Itxaronaldia luze ez egiteko hitzorduak ez dira, halere, Urnietan faltako. Etxeberriko jaiak igaro dira, eta asteburu honetan beste bi hitzordu nagusi ditugu. Ostiralean, bertso afaria Oianumen Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolarien parte hartzearekin. Larunbatean, "Egape beti dantzan" ikuskizuna Saroben iluntzeko 19:00tan hasita. Eta horrela iritsiko gara Sanmielen bezperara, ia-ia.

Erredakzioa URNIETA

Sanmielak dira, ezbairik gabe, Urnietako jairik indartsuenak. Eta, egutegian, data horren inguruan, indarra hartzen ari dira beste bi ospakizun. Festa nagusiak ate joka daudela iragartzen diguten Etxeberri plazako festak, batetik, eta Sanmielen jarraipen moduko funtzioa betetzen duten Xoxokako jaiak, bestetik, ikasurtearen hasiera, udaren amaiera eta udazkenaren hasiera festaz festa igarotzen dute urnietarrek.

Etxeberri jaietan, ostiraletik igandera

Pandemia tarteko, ospakizunak behar bezala egiteko garai zailak izan dira. Horrexegatik, aurrean hiru eguneko ospakizunak antolatzea erabaki zuen auzoko jai batzordeak. Ezagun denez, Etxeberri plaza bizigune berri samarra da Urnietan, eta, haren inguruan, zenbait familia ekimen handia erakusten ari dira. Auzoko festak ospatu berri dituzte, eta festara udalerriko gainerako herrikideak hurbildu ziren. Egitarauan, besteak beste, parte-hartzaileak izan ziren festen hasierako hitzorduak eta haur

HIRU EGUNEKO OSPAKIZUNAK ANTOLATZEA ERABAKI ZUEN AUZOKO JAI BATZORDEAK

Auzo izaera indartzeko jaiak

Etxeberri plaza bizigune berri samarra da Urnietan, eta haren inguruan hainbat familia ekimen handia erakusten ari dira. Auzoko festak ospatu berri dituzte, eta festara udalerriko gainerako herrikideak hurbildu dira



Talde lanari esker egiten dira jaiak Etxeberri plazan. AIURRI

eta gaztetxoei begirako ekitaldiak.

Parte hartzea, horixe zen antolatzaileen asmo nagusia. Fran Bravok hori bera eskatu zuen jaien hasierako ekitaldian: "Berriro hemen gaude zuekin, festa bizitzeko gogoz. Ahalegin handia egin dugu jaiak ahalik eta hobekin atera daitezela. Hilabeteak eman ditugu programa antolatzen, adin guztietako jendeak ongi pasa dezan. Egitarauan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu".

Azken asteetan bizi izan den eguraldi itogarrik ez da izan, baina, eguzki izpien berotasunean, ur-jolasek uda giroko ospakizunetara eramanez dituzte bizilagunak. Etxeberriko Jai Batzordean kemena eta gogoa dagoen bitartean, auzoko jaiak mundialak izango dira. Denboran geroz eta gehiago irau, askoz hobe izango da etorkizunera begira. Auzo izaera indartzeko joango da, urtez urte. Giro ona errotuko da, eta haur diren horiek jaiaren ardurari eutsi eta aurrera egingo dutelako. Auzoan jaiak abiatu zuten horien omenez, eta etorkizunean haur izango direnak gogoan.

EGUZKI IZPIEN BEROTASUNEAN UR-JOLASEK UDAKO OSPAKIZUNETARA ERAMAN DITUZTE



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI




AIURRI



AIURRI

ETXEBERRIKO
J A I A K

BIDEOAK, ARGAZKI-BILDUMAK...
AIURRI.EUS





Andoaingo PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien agerraldi bateratua, artxiboko irudian. AIURRI

PSE-k eta EAJ-k prentsa ohar bidez elkarri adierazi diote haserrea

Oharrez ohar, gainera, haserrea handituz joan da. 2019an Udal Gobernu taldea osatu zutenetik, hauxe da PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien artean sortu den arrakala handiena. Antzeko egoeretan gobernuak hautsi izan dira, baina ez dirudi horrelakorik gertatuko denik

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Herri plataformak Bazkardoko lotune berriaren aurrean aurkeztu zuen mozioak espero ez zuten ondorioa ekarri du. Mozioa aurrera atera izanak, gobernu kideen arteko talka eragin du. Sozialistek bat egin dute Herri plataformak proposatzen duenarekin, eta hori ez da jeltzaleen

gogoko izan. Ez dute auzi horretan, andoaindarren artean, Aita Larramendi ikastolaren parean panel akustikoak jarri ez izanaren pagaburu bezala agertu nahi, eta sozialisten aurka ekin dute.

Ika-mika, oilar-jokoa, rap musikariaren artean ezagun den "beef" a... Egunerokoa interesez jarraitzen duen andoaindar asko

zur eta lur geratu da Andoaingo EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien artean sortu den polemikarekin. Ez delako ohikoa horrelakorik gertatzea. Udal jardueran sortuko dira diferentziak, baina herritarrek horrelako talka baten lekuko izatera ez gaude ohituta.

Ez bat, ez bi. Hiruna mezu publiko zabaldu dituzte, gudu-

zelaia hedabideetan kokatuz. Astea Aiurri.eus-en klik eginez eman dute andoaindar askok. Borrokaldi honetan lubakiak alderdi bakoitzaren bulegoan kokatu dira, eta bertako orde-nagailuetatik jaurtitako munizioa prentsa-oharrak izan dira. Airez hasi zen borrokaldia, Donostia-ko Gipuzkoa plazatik iritsi baitzen lehen "boom" mezua. Handik aurrera borrokaldiak gorputzez gorputz jarraitu du. Oharrez ohar tentsioak gora egin du. Oraingo horrela doa partida: Azken oharraren arabera, Udal Gobernu taldeko alderdi jeltzaleak kide duen alderdi sozialistako buruzagiari ezjakintasunez aritzea leporatzen dio: "Maider Lainez alkateak bere nahasmenean jarraitzen du, bere argudioak eta jarduteko modua oraindik ere ulertezinak baitira". Gudu-zelaiaren bestaldean, Udal Gobernu taldeko alderdi sozialistak kide duen alderdi jeltzaleari bazterrak nahasten ibiltzea adierazi dio: "EAJ benetan garrantzitsua denaren fokua nahastu nahi du: Andoainek C2 trazaduraren proiektuaren aurka emandako erantzun irmoa". Monty Pythonen "Brianen bizi-tza" zenbat bider erabili da eredu bezala, ezker mugimenduen parodia egiteko! Gobernu taldean dira, egun, "Judeako Herri Batasuna" eta "Judeako Fronte Batua".

Gisa berean hasitako ika-mika, oilar-joko edo "beef" askoren segidan haustura iritsi izan da

gobernantza partekatua ematen den erakunde askotan, baina ez dirudi Andoainen horrelakorik gertatuko denik. Jeltzaleen esku jarraituko du Kultura, Ingurumena edota Euskara sailen kudeaketak. Eta sozialisten ardurapean jarraituko dute Hirigintza, Gizarte Zerbitzuak edota Kirol sailek. Andoaingo Udal arduren eta gobernu taldea osatzen duten bi alderdien baitan hierarkia argi bat eraiki da, Maider Lainez eta Imanol Goenaga buruzagien baitan.

Gertaturikoa ez da hain erraz ahaztuko

Aita Larramendi ikastolako panel akustikoen harira, Gipuzkoako Foru Aldundia izan zen prentsa-ohar bidezko borrokaldiari hasiera eman ziona. Helburua argia zen: Andoain herriri adieraztea nor zen panelak lehenago jarri ez izanaren arduraduna. Jeltzaleek ez zuten erre-pideak Andoain barrera sortzen duen zarataren krisian erantzule modura agertu nahi. Errua sozialistena da, horixe zen hitz lauak erabilia lehen oharrak iradokitzen zuena. Geroztik elkarri zuzendutako beste bost prentsa-oharrek zatiketaren sakondu dute. Gatazkaren eskalada horretan Maider Lainez alkateak izan duen erreakzioa aipagarria da. Oharrez ohar, egunegun, are eta argiago agertzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen C2 egitasmoaren aurka. Esponentziala izan da bere aurkakotasuna. Ez zuela gogoko esaten zuen irailaren hasieran, eta hamar eguneko bueltan Andoain C2ren aurka irmoki agertu dela defendatzen du. Honaino iritsita, gobernu talde berean talka egiten duten bi posizio daude: C2 egitasmoa Andoainen aurkeztu eta defendatu zuena (EAJ), eta C2 egitasmoaren aurka geroz eta argiago mintzatzen ari dena (PSE).

Herritarren artean, aurreko asteko borrokaldiaren lekuko izan diren herrikideen artean izango dira iritzi ezberdinak. Baina bada ahaztea komeni ez den detailea. Alderdien arteko gatazka publikoak ezin du inoiz herritarren premiari eta arazoek baino protagonismo handiagoa hartu behar. Auzia ez da zein alderdi haserretzen den gehiago. Benetako auzia da zaratak, kutsadurak eta erre-pide egitasmoak egunerokoa sor dezakeen kalteari irtenbidea ematea.

Prensa-ohar bidezko haserraldiaren kronologia

Zalaparta eragin dute aurreko aste osoan zehar sozialistek eta jeltzaleek elkarri gurutzatutako prentsa oharra. Galdu samar zabilta? Hauxe, prentsa-ohar bidez guduaren kronologia,

Irailak 12, astelehena.

Ez ohiko plenoa

Ez ohiko plenoan Herri Plataformaren mozioa aztergai izan zen. Ordu bete luzeko eztabaidaren ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrera eraman nahi duen egitasmoa bertan behera uzteko proposamena aurrera ateratzen da. Aldeko botoak EH Bildurenak, PSE-EErenak eta Podemos Ahal Dugurenak izan ziren. EAJ-PNV abstenitu egin zen. Plenoaren aurretik Herri Plataformako bozeramaileak iragartzen du Aita Larramendi ikastolak ere alegazioak aurkeztuko dituela.

Irailak 13, asteartea.

Foru Aldundiaren oharra

Gipuzkoako Foru Aldundiak Andoingo Udalarari leporatzen dio Aita Larramendi ikastola parean pantaila akustikoak jartzeko atzerapenaren errua: "Gipuzkoako Foru Aldundia kezkatuta agertu da Andoingo Aita Larramendi ikastolak N-I errepidean jasaten duen trafikoko zarata arintzeko beharrezkoak diren pantaila akustikoak jartzearen atzerapena dela eta. Aldundiak argi utzi nahi du, bai ikastolaren aurrean, bai Andoingo herritarren aurrean, ikastolako pantailen proiektua erabat independentea dela Bazkardoko bizikidetzaren proiektutik, eta, beraz, udalak lurra eskura jarri arte, ezin izango direla ikastolako pantailak jartzen hasi".

Irailak 14, asteazkena.

Alkatearen agerraldia

"Aldundiari erantzunez, harrituta gaude oharrarekin eta onartezina da Aldundiak une honetan Udalarari leporatu nahi izatea erantzukizuna, orain arte ezertxo ere egin ez duenean. Udalak irailaren 2an erantzun zion Aldundiari alegazioak iritsi arte itxarongo zuela. Eta 12an oso argi agertu zen Udalaren jarrera zein den, C2ren egitasmoaren aurkakoa. Bitxia da biharamunean Aldundiaren oharra argitaratzea".

Irailak 14, asteazkena.

EAJ-PNVren prentsa-oharra

"Erabat ulertezina da Maider Lainez alkateak duen jarduteko modua, Aita Larramendi ikastolako pantaila akustikoak jartzeko atzerapenarekin sortzen ari den nahasmena ikusita. Jarrera hori nekez dator bat Andoingo interes orokorarekin, eta ikastetxeko ikasleek eta han lan egiten duten pertsonen pairatzen duten egoeraren aurrean sentsibilitate falta erabatekoa erakusten du. Andoingo Udaleko EAJ-PNV taldetik azpimarratu nahi dugu proiektuaren garapena nahita atzeratu izana Maider Lainez alkatearen eta Andoingo udal gobernuko alderdi sozialistaren ekimen eksklusiboaren ondorio dela".

Irailak 15, osteguna.

PSE-EEren prentsa-oharra

"Joan den irailaren 2an Aldundiari jakinarazi genion komeni zela harik eta alegazioak aurkezteko epea igaro arte lagapenik ez egitea, sor litezkeen kontraesanak saiheste aldera. Alegazio-aldi hori atzo amaitu zenez, gaur hasi gara lursail horiek lagatzeko prozedura eta

izapideekin. Alkateak eta Udaleko Talde Sozialistak Andoain herriaren eta andoaindarren defentsa besterik ez dugu egin. Arduraz jokatzeko eskatzen dugu, Andoingo herritarren ongizatea nagusitu dadin, eztabaida antzuen aurrean".

Irailak 16, ostirala.

EAJ-PNVren prentsa-oharra

"Harrituta gaude Andoingo alkateak egin duen iritzi aldaketarekin. Maider Lainez alkateak bere nahasmenean jarraitzen du, bere argudioak eta jarduteko modua oraindik ere ulertezinak baitira. Alegazioak aurkezteko epea bete bai, baina oraindik horiek ebatzi gabe, biharamunean bertan ekin zaio, guztion ezustean, panelak ezartzeko prozesuari. Behin eta berriz defendatu duenaren kontra, lan hauek Bazkardo-Sorabilla tarteko lan orokorretatik modu independentean eta lehenago egin zitezkeelako argudioa berretsi besterik ez du egiten alkatearen berehalako jarrera aldaketa honek, ezer gutxi aldatu baita 24 ordutan".

Irailak 17, larunbata.

PSE-EEren prentsa-oharra

"Asteartetik, EAJ-PNV benetan garrantzitsua denaren fokua nahastu eta helarazi nahi du: Andoainek C2 trazaduraren proiektuaren aurka emandako erantzun irmoa. Ulertezina da herritarrentzat Andoingo EAJ Aldundiko EAJren eta bere beharren bozeramaile bihurtu izana, Andoainen eta andoaindarren interesak defendatu beharrean. Alkateak eta Udaleko Talde Sozialistak lanean jarraituko dute, orain arte bezala, Andoainen eta andoaindarren interesak eta ongizatea defendatzeko".

POSTONTZIA

SORABILLA-ERROTAGAIN ELKARTEA

Alarma guztiak piztu dira Sorabillan

Kezkatuta eta izututa gaude, bai, sorabillatarrok, egun hauetan bolo-bolo dabilen N-1 eta A-15 errepideen kontua dela eta. Batetik, oso kezkatuta gaude gauzei ez zaielako bere izena eman nahi eta hori susmagarria da. Alegia, "kanpoko saihebidia" erabiltzen da behin eta berriz Oria ibaiaren bestekaldeko errepide berri bat zabaltzeari buruz hitz egiten denean. Inolaz ere horri ezin zaio deitu "kanpoko saihebidia", Sorabilla alderik alde gaisetrik pasatuko lukeen horri. Sorabillan inor biziko ez balitz bezala, ingurumen kalterik egingo ez balitz bezala, Andoingo altxorretako bat suntsituko ez balitz bezala. Zergatik ez dira gauzak bere izenarekin esan nahi?. Izenik ez duena existituko ez balitz bezala tratatzen delako. Beraz, hitzez hitz, esan dezatela Sorabillako Barriante proiektua dela proposatu nahi dena, ez gehiago, ez gutxiago.

Eta hori guztia, 2011ko Hiri Planeamenduaren izenean. Denok dakigu plangintza hori egun akitua eta zahartua dagoela, lehen bait lehen berri bat egiteari ekin behar zaiola, besteak beste, 2011ko plangintza horrek eraikuntzari eta errepideei gero eta leku gehiago eman nahi dionean. Egungo hirigintza sentsible eta jasangarria ordea, alderantzizko bidea egiten hasia da dagoeneko. Alegia, ingurumen naturala, paisaia

naturala herri eta hirietaraino erakarri eta zaintzeko hirigintza modernoa.

Berriro geratu behar ote dugu atzean horretan ere? Orbain gehiago ireki behar ote ditugu? Noraino iritsi behar dugu hormigoia morrontza horrekin? Ez al du Andoainek garatzeko eta hazteko beste lekuri hala beharko balu? Noiz da nahiko?

Batzuek sagar-jatera gonbidatu gintuzten andoaindar bezala baina uste dugu guri, sagar ustela eman nahi zaigula, eta hori, oso itxusia da, ez da bidezkoa, guk ez dugu sagar ustelik nahi ez eta merezi ere. Aspalditxo gabiltza gure ingurumena zainduz andoaindarrei arnas-leku, aisialdi eta kirol gune ederrak eta egokiak eskaintzen eta orain gutaz ahaztu eta "kanpoko saihebidia" garela esaten hasteko.

Ez gaude ordea geldirik egoteko. Pareko tratua merezi eta eskatzen dugu. Erasoaren aurrean, gu, ondo dagoen eremua zaintzen eta defendatzen ari gara. Sorabilla Andoingo birika eta paisaia da. Geure indar guztiekin jarraituko dugu gure auzoaren eta Andoain osoaren onuraren defentsan, gauzei bere izenez deitzen eta aurrez aurre elkarlanerako prest. Baina ez gaitzatela nahastu eta gutxietsi: alarma guztiak piztuta daude Sorabilla osoan (Azpikolatik Balastrainera)

Erantzukizuna eskatu du EH Bilduk

Sozialistak eta jeltzaleak "ikuskitzen eskasa" eskaintzen ari dira, oposizioa lehen indarraren arabera

Erredakzioa ANDOAIN

Kritiko agertu dira Udal Gobernu osatzen duten bi alderdiekin: "Azken egunetan, PSE-EE eta

EAJ-PNV ikuskitzen eskasa eta auzo lotsa eragiten duena eskaintzen ari dira herritarren aurrean. Asteazkenetik aurrera

egunero prentsa ohar bat argitaratu dute bata besteari Ikastola pareko pantailak ezartzeko prozedura atzeratu izanaren errua aurpegiarazuz. Gogoratu behar dugu ehunka familia andoaindarrek pairatzen dituztela afekzio akustiko izugarriak eta gaia garrantzitsuegia dela elkarri mokoka aritzeko.

Horregatik, Udal Gobernu osatzen duten ordezkariak dei egiten diegu ikuskitzen tamalgaria albo batera uztera. Gu prest gaude, irailaren 12an onartu zen mozioan agertzen diren puntuen alde lanean hasteko, eta konponbideak bilatzen aurkituko gaituzue. Hori dela eta, honako hau eskatu nahi dugu:

- Bi alderdiak erantzukizunez jokatzeko hasi daitezela.
- C-2 proiektua atzera bota ondoren, aurrera begirako plangintza bat aurkeztu dezatela.
- Sorabillan, Karrikan, Ikastolan, Mimendin eta Buruntzan eragin akustikoak arintzeko elementu egokiak jar daitezela".



Ahobizi eta Belarriprest aritzeko ariketa azaroan hasiko da. Hori baino lehen, Euskaraldiaren ospakizuna izango dugu Andoainen. Datorren ostiralean, hain zuzen, arratsaldeko 19:00tan hasita. AIURRI

Iristear da Andoain dantzan jarriko duen ospakizuna

Euskaraldiaren edizio berria iristear da, norbanakoen izen-ematea datorren astean abiatuko baita. Data horrekin bat eginez, Andoaingo Euskaraldiak aurkezpen-festa antolatu du irailaren 30erako. Kalegira eta bokata-afaria dira hitzordu nagusiak

Ainhoa Manterola ANDOAIN

Andoainen euskararen alde eragiteko baliatu nahi da Euskaraldia. Euskaldunak eta euskararen bidean dauden gainerako herritarrek, guztiak elkarrekin, dantzan jarri nahi dira hurrengo asteko ospakizunean. Herri osoari zuzendutako festa da, eta, bertan, kuadrillak edota familiak parte hartzera deituta daude. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da ospakizuna Bastero Kulturgunearen parean dagoen plazaxoan, Plaza Morea-Andreurdiarena izendatu berri den gunean. Mai-zorri taldeko txalapartariak emango diote ospakizunari hasiera, eta, segidan, Mulambo perkusio taldearen kalejira abiatuko da. Plaza Moretik Bekoplazararaino euskaltzaleak afrikar doinuen erritmoan dantzan jarriko dituzte. Bidean geldialdiak egingo dituzte Juanita Alkain plazaxoan, Kale Nagusian eta

Espigoiaren ondoan. Bekoplazara iritsita, bokata-afari musikatuaz gozatu ahal izango da. 5 eurotan ogitartekoak eskainiko ditu antolaketak. Era berean, Bekoplazan bertan edariak eta Euskaraldiaren materiala erosteko aukera izango da. Belarriprest edo Ahobizi denak zalan-tzak argitzeko informazio puntua izango du bertan. Eta eguna borobiltzeko, gaueko 21:00tan Elektropottote elektrotxarangak musika emanaldia eskainiko du Bekoplazan bertan. Jaiiaz eta euskaraz gozatzeko eguna izango da.

Lanerako boluntarioak behar dira

Jaialdiaren antolaketan lagundu nahi? Idatzi e-posta andoain@euskaraldia.eus e-postara, eta Andoaingo Euskaraldiko arduradunak zurekin jarriko dira harremanetan.



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugartemendia.

idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocío Arias (Andoain),

Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.

Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz

"Ilusio handiz ariko gara Andoaingo saioan"

ITXASO SANCHEZ ETA NAGO HUIZI ELEKTROPOTTOTTE

Uztailean jo zuten lehen aldiz Lasarte-Orian, eta, uda lanean igaro ondoren, kaleak dantzan jartzen dabilta herriz herri. Andoaingo ospakizunean parte hartuko dute

Ainhoa Manterola ANDOAIN

Duela gutxi sortu zen Elektropottotte elektrotzaranga. Nolako izan da hasiera? Zein sentsazio duzue? Itxaso Sanchez: Taldekide batek idatzi zidan abeslaria behar zutela esanez eta animatu egin nintzen.

Nago Huizi: Aspaldi sortu zen ideia. Ideia eta gogo horiek, ordea, airean egon dira urte honen hasierara arte. Otsailean ideia-ri eutsi genion eta taldea sortu genuen. Horietako batzuk entseatzeko hasi ziren. Parranda giroan taldeko pare batek txindata jotzeko proposamena egin zidaten eta ezin ezezkoa eman! Taldea oraintxe bertan motibatuta dago eta oso giro ona dugu. Ilusioz hartzen ari gara lehen kontzertuak.

Neskek eta genero disidenteeek osatzen duzue taldea. Erabaki bat al da? Eta zergatik?

I.S.: Elektrotzaranga asko dago, baina horietako gehiengoak gizonen osatuta dago. Errepertorio aldetik ere, batik bat, gizonen osatuta dago. Errepertorio aldetik badago aldaketa, elektrotzarangari horren lotuta ez dauden kantak jotzen ditugulako. Bestetik, geuk eta entzuleek gozatzeko helburuarekin egiten dugun, egiten dakiguna erakusteko, beldurrik gabe, batzuetan ondo eta beste batzuetan ez horrenbeste, baina gozatuz. "Marratxa" batzuk izateko gaude hemen. Gizonezkoen onartzen zaizkien gauzak dira, baina emakumeen gehiago exigitzen zaigu, batik bat, jendaurrean.

N.H.: Taldekide guztiak neskek eta genero disidenteeak izatea eta eredu maskulino horri lekuri ez egitea hautu politiko bat da. Elektrotzaranga ulertzeko modu gehiago daudela erakutsi nahi dugu.



Itxaso eta Nago. AIURRI

Janzkera ere bada talde gisa bereizgarri duzuen zerbait. Zergatik janzkera horiek?

I.S.: Oñatiko topaketa feministetan "Chocolate Remix"-en kontzertua zegoen, eta taldekide bati eta niri, bertan ezagutu berri ginenak, haien janzkera gustatu zitzaigun. Beraz, horrelako zerbait egin nahi genuen, bakoitzak bere estiloan, noski. Nire erreferentzia, adibidez, Nago izan zen. Mozorro bat janztearen antzerakoa iruditzen zitzaigun. Jantzi eta pertsonaia bat sortuko bagenu bezala da eta horrek aukera ematen du beste nortasun bat ateratzeko. Niri asko laguntzen dit eta asko errazten dizkit gauzak. Jantzi eta beste norbait bihurtzen naiz, "Maritrini", adibidez.

N.H.: Janzkerak perfektuak ez gara onartzeko aukera ematen digu, azken finean, "performance"-aren parte da. Horretaz jardun genuen aurrekoan taldean, nola eragiten duen beturreko soil batzuk janzteak, nola bihurtzen garen nahi gabe beste pertsonaia batean, eta hori kenduta jarraitzen dugun geu izaten: Itxaso, Nago eta taldeko beste guztiak.

Andoaindarrak zarete eta irailaren 30ean Andoainen joko duzue lehen aldiz. Zein sentsazio dituzue? Orain arteko kontzertuekin alderatuta ezberdina izango dela uste duzue?

N.H.: Lezora eta Santuenera inguruko lagunak joan zaizkigu ikustera, baina herritik kanpo izan dira emanaldiak. Andoaingo emanaldirako urduritasun gehigarri bat dago, azken finean, herrian jotzen ari gara, horrek dakarrenarekin: jende ezagun gehiago, begirada ezagun gehiago... Era berean, ez dakigu jendeak zer ulertuko duen eta zein interpretazio egingo duen, hau da, nola jasoko duen gure elektrotzaranga. Horrek urduritasun handia eragiten dit. Aldi berean ilusio handia egiten dit Andoainen jotzeak.

I.S.: Guztiz ados. Janzkerak bat dugu eta sortutako pertsonaia, baina era berean, biluzte bat da. Beldurrak agertzen dira. Betiko Nago eta betiko Itxaso oso ezberdin ikusiko dituzte.

N.H.: Bai, herriko jendeak pertsona gisa ulertu eta irakurriko gaitu, ez pertsonaia moduan.

Euskaraldiko aurkezpen festan joko duzue. Herrian Euskaraldia bezalako ekimenak antolatzea garrantzitsua iruditzen zaizue? Zergatik?

N.H.: Betiko moldeak alde batera utzi eta horrelako ekintzak eta festak egitea baloratzen dut. Musika baliabide bat da eta nagusiki euskal abestiak jotzen dituen elektrotzaranga gara. Gure hautu bat da, eta, Euskaraldiko aurkezpen festan joko genuela ikusita, erronka jarri genion geure buruari: ia zenbat euskal kanta ekar genitzakeen elektrotzarangara. Ezin dut gehiegi aurreratu, baina errepertorioan aldaketak egongo dira.

I.S.: Bai, euskaraz parranda ere egin daitekeela eta euskal abesti zein letrekin giroa sortu daitekeela berrestera goaz!

"Afrobrasildar kutsuko erritmoak joko ditugu"

OIHANA SANCHEZ MULAMBO

Andoainen bizi da Tolosako batukada taldeko kidea



Mulambo, Tolosan. Makurtuta, eskuinetik lehena, Oihana Sanchez. AIURRI

Ainhoa Manterola ANDOAIN

Euskaraldiko aurkezpen festa girtzen lagunduko duzue irailaren 30ean. Nola aurkeztuko zenuke zure taldea eta zein estilo lantzen duzue?

Duela 22 urte sortutako batukada da Mulambo. Garai hartan batukadak ez ziren orain bezain ezagunak. Brasildik, zehazki Rio de Janeiro ingurutik zetozen erritmoak lantzen genituen hasiera hartan, Bilboko batukada talde batengandik jasotako eskolen laguntzaz. Hortik aurrera, geroz eta gehiago sakontzen joan ginen eta afrikar erritmoak ezagutzeko aukera ere izan genuen. Nahiago genituen horiek eta horri heldu genion. Beraz, afrobrasildar kutsuko erritmoak joko ditugu. Horrekin batera, afrikar jatorria duten pertsonak taldean sartuz joan dira, eta ekarpenak egiten dituzte. Brasil, Afrika eta euskaldunok jartzen dugun saltsa uztartzen ditugu. **Tolosako jaietan ehunka lagun izaten dituzue atzetik. Nola deskribatuko zenuke sentsazio hori?**

Mulamborentzat egun seinalatua da Tolosako kuadrilla eguna. Gure sorreratik ia urtero jo dugu bertan, eta guretzat oso polita da. Izan ere, kuadrillek antolatzen dute eguna eta hasi ginenean gure adin beretsuko kuadrillek antolatzen zuten eguna. Orain, taldeko gehientsuenok berrogei urtetik gora ditugu, baina, hala ere, kuadrillen egunean aritzeko deitzen gaituzte. Gogoan

hartzten gaituztela ikustea pozgarria da oso.

Tolosarra zara baina Andoainen bizi zara. Zer iruditzen zaizu herrian Euskaraldia bezalako ekimenak antolatzea?

Beharrezkoa. Batez ere euskara ulertu bai, baina hitz egiteko beldurra duen jendea badagoe-lako. Euskaraldia bezalako ekimenak antolatzeak pertsona horiek ematen diela iruditzen zait. Agian ez da hitz egitera iritsiko, baina erabiltzen ditugun Ahobizi eta Belarriprest txapekin badakizu pertsona horrek prestutasuna duela, ulertzen duela eta euskaraz hitz egin diezaioketela; eta, beharbada, animatuko da hitzen bat esatera. Beraz, pertsona horiei euskarara gehiago gerturatzeak aukera polita dela iruditzen zait. **Ez dituzue emanaldi gehiegi eskaintzen. Gogotsu al zaudete Andoaingora hitzordurako?**

Guretzat elkartzeko aitzakia da. Kontzerturik lotuta eduki ezean, zaila egiten zaigu elkartzea, gutako asko familiak baikara. Konpromisoa hartzen badugu entseatzeko elkartu behar gara. Aitzakia polita da eta motibazioz beteta gaude.

"BRASIL, AFRIKA ETA EUSKALDUNOK JARTZEN DUGUN SALTSA UZTARTZEN DUGU KALEJIRAN"



Miren Lopez de Munain, Juan Godoy, Ekaitz Ollo *Tolo* eta Jon Urtasun Basteron. Maizorri.com web orrian ekitaldi sortari buruzko informazioa topa daiteke. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Txalaparta eta Andoaingo herriarekin eta herritarrekin bazen dituen argazki erakusketak osatuko du erakusketaren zati bat. Juan Godoyk gogorarazi duenez, Maizorriren azken 20 urteak irudietara eraman nahi izan dituzte, eta aldi berean, Andoainen aitzindariak izan ziren ekimenak ere gogoan hartu nahi izan dituzte; izan ere, Maizorri txalaparta eskola sortu aurretik, Andoainen nahiko errotuta zegoen txalaparta, eta zehazki, haiek ereindako haziei esker sortu zen Maizorri”.

Era horretan, erakusketara hurbiltzen den ikusleak zenbait aurrekari historikorekin egingo du topo “hala nola, Peio Zuaznabarrek Aita Larramendi ikastolako ikasleei eman zizkien eskolak, 90eko hasieran Gaztetxe zaharrean Asier Gonzalez Oxinbo-rekin 40 gazteentzat antolatutako tailer arrakastatsua, Leitza-ran bailaran, Kiriki parajea, hiru harkaitz punta lotuz egin zen txalapartazko komunikazio saioa...”.

Nolanahi ere, azken 20 urteetako irudiak dira nagusi erakusketan; Maizorriko kideek antzez-

Txalapartaren festa, hurrengo egunetan

XX. urteurrena ospatzeko prestatu duten ekitaldi sortari azken ukituak ematen galtzak bete lan dabilta. Musika tresna tradizionalen eta elkartearen iraganari begira jarri diren arren, txalapartak hartu dituen bide berritzaileak ere kontuan hartu dituzte

tokietan nahiz kalean jendaurrean egin izan dituzten saioak edo tailerrak islatzen dituzte horiek, edo eta, herriko hainbat kultur taldeekin elkarlanean egin izan dituzten ekitaldi publikoen berri ematen dute.

Erakusketak, atzera begirako ariketa izanagatik, etorkizunean

**IRAILAREN 22AN HASI
ETA URRIAREN 14RA
BITARTE ERAKUSKETA
BASTERON IKUSGAI
IZANGO DA**

txalapartaren sustapen eta zabalpen lanetan jarraitzeko indarrak emango dizkiela uste du Godoyk. “Ibilbide xumea izan da gurea, baina balorazioak egiten hasita, ohartzen zara txalaparta eskolaren eskutik ehun herritarretik gora eduki dutela aukera txalapartarekin lehen kontaktua edukitzeko, sakontzeko eta gozatzeko. Bada zerbait! Gauza horrela, argi daukagu merezi duela jendartean zabaltzen segitzea”.

Euskal Herriko musika tresnek beteko dute erakusketaren bigarren espazioa. Oiartzunen

egoitza duen Soinuenea Fundazioaren museoak utzita, Euskal Herriko tradizioetik bildu diren makina bat tresna ekarriko dira Basterora.

Erakusketaren irekiera ekitaldia 19:00etan izango da. Bertan, jakina, txalapartaren hotsak hartuko protagonismoa handiena; horrela, Maizorriko kideek ez ezik, Mari Karmen Zuaznabar eta bere seme Pello Urangak hartuko dituzte makilak.

Talde berritzaileak

Txalapartaren munduan bide urratzaileak diren Bihotx (Her-

nani) eta Txek (Tarragona) taldeek kontzertu bana eskainiko dute Plaza Morean, irailaren 30ean, ostiralarekin, 20:30etik aurrera.

Lara Mitxelenak, Gema Inesek eta Ixiar Jauregi musikariek osatzen du Bihotx, eta “Norabide Guztiak” izenburuko ikuskizuna aurkeztuko dute Basteron. Mitxelena akordeoi-jolea da, Ines gitarra-jolea eta Jauregi perkusio-jolea; txalapartak batu die hiru musikariei, eta hots tradizionalak eta garaikideak uztartuz, ahotsekin eta dantzeekin jantzitako ikuskizun ikusgarria atondu dute.

Nando Talo eta Siscu Aguilera Txek-Tarragonako Txalaparta Eskola izenburuko ikuskizunarekin datoz Kataluniatik. Euskal Herrikan kanpo, txalapartari heldu dioten musikari bakarrak izango dira ziurrenik. Kepa Junkeraren zenbait doinuak entzungai zen txalapartaren hotsarekin txoraturik geratu ziren hasiera batean, 2002an. Hernaniko txalaparta eskolan hartu zituzten makilak lehenbiziko aldiz, eta harrezkerro, etengabe aritu dira sakontzen. Junkerarekin zenbait kontzertuetan parte hartzeko aukera eduki dute, besteak beste. Zurraren, harriaren edo beiraren kolpeen erritmora sortu duten ikuskizuna eskainiko dute Plaza Morean.

Egun osoko egitaraua, urteurrenari bukaera emateko

Ekitaldiz beteriko egitaraua osatu dute urriaren 1erako.

10:00ean, Txalakanpaia San Martin elizan. Maizorriko kideek adierazi dutenez, “txalaparta doinuez elizako kanpaia astinduko ditugu gure ttakun eta herrenak lau haizeetara zabaltzeko”. Segidan, 11:30ean, Kinkoketa saioa egingo dute, Juanita Alkain plazan. “Kirikoketaren erritmoaz sagarra zanpata eta tolarean estutu ondoren zuku edan eta sagardoa egingo dugu garai batean bezala”. Eguardian, 14:30ean, babarrunjate herrikoia antolatu dute, Etxeberrieta plazan.

18:30ean, mahaietatik altxa, eta Txala Bertso poteoari ekingo diote tabernaz taberna, Punttuka bertso eskolako kide eta txalaparta ibiltariarekin batera. Azkenik, 20:30ean, Txalaparta Party Aparta izango da, DJ Barru-rekin.



Hamahiru talde aurkeztu ditu Leizaran eskubaloi taldeak, denboraldi honetarako. Aurreko asteko aurkezpenaren argazki-bilduma eta bideoak Aiurri.eus webgunean ikusgai daude. AIURRI

Talde izaera sendotzeko aurkezpen-ekitaldia

Denboraldiaren aurkezpena egin zuen Leizaran Eskubaloi taldeak, aurreko asteburuan. Jokalari guztiak, banan-bana, aurkezpen-ekitaldiko protagonista bilakatu ziren. Talde izaera sendotzeko aurkezpen-ekitaldia izan zen

Erredakzioa ANDOAIN

Klubaren izenean bi kirolari gaztek egin zuten adierazpena hauxe izan zen: "Kirol emaitza onak lortzea da gure helburu nagusietako bat, baina ez dugu inoiz ahaztu behar, kirol-emaitza onak, gure entrenatzaileek gidatuta egin behar dugun ezinbesteko ikaskuntza eta ahalegin prozesu baten ondorioz iritsiko direla. Ikasten segitzeko gogoz gaude, prest gaude gogor saia-

tzeko, eta Leizaran mailarik gorenera eraman nahiko genuke. Kirol emaitzez gain, beste desio bat dugu 2022-2023 denboraldi honetarako, eta desio hori gure klubarekiko dugun sentimendua gainerako andoaindarrei transmititzea eta kutsatzea da. Andoaingo txoko guztietara zabaltzea. Harmaila hauek andoaindarrez bete behar ditugu, zeren eta gure zaleen txalo eta animo beroak izango baitira

hainbeste desiatzen ditugun kirol-garaipen horiek lortzen lagunduko digutenak.

Asko gara era batera edo bestera gure aletxoa jartzen dugunak gure nahiak bete daitezten. Beraz, gure aitormenik zintzoena klubeko bazkideei, gure gurasoei, epaileei, erakunde babesleei, erakunde publikoei, elkarte gastronomikoei eta merkatariei, lantaldeei eta zuzendaritzari".



Lagunek adierazpena irakurri zuten, Allurralden. LEIZARAN

Udan istripuan hil zen Jon laguna gogoan izan zuten taldekideek

Hauxe da irakurri zuten adierazpena: "Dakizuen bezala, aurtengo denboraldia berezia izango da iaz lortu genuen igoeragatik. Udan, gutako bakoitzak, denboraldi berrirako prestakuntzari ekin genion ahalik eta maila hobereana erakusteko. Zoritxarrez, prestaketa lanetan ari girela, azken urte hauetan sortu dugun familiako kide garrantzitsu bat joan zaigu. Leizarango senior mailako taldearen izenean, Jon Ibañez taldekidearen galera sentitzen dugu. Pertsona irribarretsu eta jator gisa oroituko dugu, zeinak zelaian eta zelaitik kanpo giro zoragarria sortzen zuen. Azken urtean, ikasketak medio ezin izan zuten eskubaloian jokatu, beraz, aurtengoan, itzulerarako ilusio handia zuen. Denboraldi berriari begira, inoiz baino gehiago borrokatuko dugu emaitza onak lortzeko, Jon lagunari eskaini eta erakusten zuen ilusio hori zuei helarazteko. Jon Ibañez harro sentitzea espero dugu. Eskerrik asko".



Euskaldunako zuzendaritzako kideak Gurruren senitartekoekin batera, omenduaren memorialean. EUSKALDUNA

Gurru gogoan, zelaian eta zelaitik kanpo

FUTBOLA Lehen Gurru memoriale ospatu zen iragan larunbatean Ubitarte futbol zelaian. lazko irailaren 16an hil zen andoaindar maitatua, baina oroimena ezin da denboraz neurtu, betirako da, eta hala erakutsi zuten futbol zelaian

Mikel Arberas ANDOAIN

Neska eta mutilen launa taldek parte hartu zuten lehen Gurru memorialean. Nesketan, Euskalduna, Mariño, Urnieta eta Hernani. Mutiletan, berriz, Martutene, Euskalduna, S.A.N.S.E. eta Inter. Hasieratik amaierara giro ona eta hunkigarria nagusitu zen, Iñaki Gurrutxagaren omenezko lehen memorialean. Sari-banaketan, Ane Amondarain emazteak, Imanol Gurrutxaga semeak, eta Iker Ipintza, Julen Gurrutxaga eta Ander Amondarain ilobek parte hartu zuten. Horrez gain, bertan izan ziren Euskalduna futbol taldeko zuzendaritzako kideak, lagunak, gertukoak eta andoaindarrak.

Maitatua, han eta hemen

Heriotzaren urteurrenean hainbat herritarrek, gazte zein heldu, gogoan hartu zuten andoaindar eta futbolzale amorratua. Herrian aski ezaguna zen Gurru, futbollean eta gizarte bizitzan murgilduta baitzegoen.



Sari banaketa ekitaldia. XOXOKAKO JAI BATZORDEA

Julen Loidi garaile Iñigo Irisarriren aurka, Xoxokan

PILOTA Julen Loidi andoaindarrak Iñigo Irisarri adunarrari irabazi zion (22-18)

Erredakzioa URNIETA

Xoxokako pilota txapelketako finala jokatu zen larunbatean; Julen Loidi andoaindarrak Iñigo Irisarri adunarrari irabazi zion (22-18); bigarren aldiz irabazi du Loidik txapelketa eta, datorren urtean ere parte hartzea aurreikusten du. 3. eta 4. postuak Josu Mujikaren eta

Xabier Ansaren artean erabaki ziren; Mujikak erraz gailenduta hirugarren postuan sailkatu zen (22-7).

Norgehiagoka orekatuaz eta biziak gozatzeko aukera egon zen; oso partida fisikoa eta teknikoa: adunarra pilotari teknikoa da eta andoaindarrak fisikoagatik nagusitzen da.



Julen Loidi sakea egiten eta Iñigo Irisarri eramateko prest. XOXOKAKO JAI BATZORDEA



Urnieta
udala

DV txapelketa Andoainen

PILOTA Asteburuan pilota txapelketa ezaguna jokatu da, goizeko 11:30ean hasita Arraten; promesa eta senior mailako partida bana jokatu dira. Promesetan, Beloki andoaindarrak Etxeberriarekin jokatu du, Beitia-Canseco bikotearen aurka. Seniorretan, berriz, Olaetxea-Cordon bikoteak Garcia eta Albenizen aurka jokatu du.



Esku pilota hiriburuetan

PILOTA Emakume Master Cup txapelketaren sorrera inflexio puntua izan zen esku pilotan. Oraingoan, 3 Hiriburuak txapelketa aurkeztu dute, eta emakumezkoen pilota mundua are gehiago sustatzea espero da. Nora Mendizabalek Amaia Aldaiekin jokatu du, elitean. Gainera, finala Donostiako Atano frontoian izango da, urriaren 16an.



Sanpedrotarra, nahi eta ezin

ARRAUNA Libia trainerako Imanol Olasagasti eta Jon Jauregi arraunlariek ezin izan zuten Eusko Label ligarako igoera eskuratu iragan asteburuan. Larunbatean lehen lehia eduki zuten eta uste baino emaitza kaskarragoa lortu zuten. Igandean ere emaitzak ez zuten hobera egin. Horiek horrela, Lekittarra eta Meira taldeek eskuratu dute igoera preziatua.



Igerilariak Zuhatzan

IGERIKETA Azken urteetan irteerarik antolatu ez duten arren, aurten Zuhatzako irteera egiteko ohitura berreskuratu dute Buruntzaldea Igeriketa Taldekoek. Hala, iragan irailaren 5ean, 6an eta 7an Araban izan ziren taldeko hainbat kide. Guztira 44 haur eta gaztek parte hartu zuten asteburu pasan eta askotariko ekintzetan zein jolasetan parte hartu zuten.



Ekimenaren aurkezpena egin zuten aurreko astean. UDALA

“Mugitu Andoain” jardunaldia, larunbat honetan

KIROLA Jarduera fisikoa eta kirola Andoaingo kaleetara ateratzeko jardunaldia antolatu du Udalak

Erredakzioa ANDOAIN

Petri Romero Jarduera Fisiko eta Kiroletako zinegotziak lan-kidetza eskertuz hasiera eman zion agerraldiari. Egun osoko jardunaldia izango da larunbatekoa, herriko kirol taldeen laguntzarekin Aurrera aterako dena. Euskalduna Mendigoizale taldea, S.D.Euskalduna elkarteak, Leizaran EKK, Ganbara S.T, Bidewushu, Kabutoken, Karate Andoain, Judo Club Andoain, Bertxin eta Sta. Krutzeko erretiratuen klubek eta 65 urtetik gorakoentzako gimnasia taldea aipatu zituen.

Larunbat goizean, udalerrian

Jardunaldia 10:00etan hasiko da eta eguerdiko 13:00etan amaituko da, Zumea plazan egingo den ekitaldiarekin. Bizikleta, Nordic Walking, arte martzialak, Ibili Andoain... egitarauan aurki daitezke.

Kaleberria, kirolgune

Sei urtetik aurrera, hainbat futbol, saskibalo eta eskubalo jokotan parte hartu ahal izango da Kale Berrian eta, azkenik, zortzi urtetik aurrera skate boalting eta surfskate lantegi batean parte hartu ahal izango da.

Romero zinegotziak adierazi zuenez, "Mugitu Andoainen helburua jarduera fisikoa sustatzea da, kirola ikusaraziz eta Andoaingo kaleak hartuz, jai giroan. Edozein andoaindar, adina gorabehera, fisikoki aktibatzea eta eguneroko ohitura osasungarriak hartzea dira erronkak. Horregatik, jardunaldi honetan, familiarizazio eta 65 urtetik gorako pertsonentzako jarduerak aurreikusten dira".

Lainez alkateak parte hartzekeo deia luzatu zuen: "Herritar guztiei dei egiten diegu hilaren 24an mugitu dadin eta kalera jo dezan".



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 22

URNIETA Mendi Tour

"Amagana" eskaladari buruzkoa, eta "Mendiak 1976" euskal espedizioari buruzkoa. Zanpatuz elkarteak antolatuta.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Matrikulazioa

AEKren eskutik aukera zabala.
Azken eguna: Irailak 23.

URNIETA Matrikulazioa

AEKren eskutik aukera zabala.
Azken eguna: Irailak 30.

OSTIRALA 23

URNIETA Bertso afaria

Aiurrik eta Poxta Zaharrek antolatuta, eta Urnietako eta Andoaingo Euskaraldiak babestuta.
20:00 Oianume.

ANDOAIN Euskara

Oinarrizko euskara eskolak merkatari eta ostalarientzat.
Info: 943 59 17 04.
Azken eguna: Irailak 23.

LARUNBATA 24

URNIETA Dantza

"Egape beti dantzan" ikuskizuna.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Poesia-errezitaldia

"Realidades" ikuskizuna. Nerea Tuduri eta Iñigo Lasagabaster.
19:00 Sorabillako Erretoretxea.

ASTELEHENA 26

ASTIGARRAGA Hitzaldia

AGIFES erakundeak buruko osasun arazoa duten pertsonak babesteko neurri juridikoei buruzko hitzaldia.
18:00 Kultur Etxea.

ASTEAZKENA 28

URNIETA Deialdia

Etixeraten eskutik, agerraldi jendetsua egin nahi dute.
18:00 Plazido Muxika plaza.

URNIETA Sanmielak

Jaien hasiera, Mielaren jaitsierarekin. Datorren Aiurri astekarian, gehigarri berezia.
19:00 San Juan plaza.

OSTIRALA 30

ANDOAIN Ospakizuna

Euskaraldiaren ospakizuna, kalez kale. Bokata-afairako txartelak salgai daude.
19:00 Maizorriko txalapartariak.
19:30 Mulambo perkusio taldea.
20:15 Bokata afaria.
21:00 Elektropottote.
22:00 Jaiaren amaiera.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Modelo 77

Ostirala, 23. 20:30.
Lar., 24. 19:30, 22:00.
Igandea, 25. 19:30.
Astelehena, 26. 19:30,
22:00 (ikuslearen eguna).

El viaje mas largo
Dokumentala. 500 urte atzera eginez, Magallanes eta Elkanoren espedizioetan arakutzen da. Asteazkena, 28. 20:15.



SINOPSIS



MODELO 77 FILMAREN ESTREINALDIA, OSTIRALEAN HASITA
Zuzendaria: Alberto Rodriguez. Aktoreak: Miguel Herrán, Javier Gutiérrez, Jesus Carroza, Fernando Tejero. Herrialdea: Espainia. Generoa: Drama, thrillerra. Iraupena: 125 minutu.

EUSKARALDIA

HITZETZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

ANDOAIN

EUSKARALDIA

IRAILAK 30, OSTIRALA

AURKEZPEN-FESTA

PLAZA MOREA
BEKOPLAZA

19:00

Plaza Morea

TXALAPARTA

Maizorri taldea.

19:30

Plaza Morea-Bekoplaza

PERKUSIOA

Mulamborekin kalejira.

20:15-21:00

Bekoplaza

AFARI
MUSIKATUA

*Bokata afaria.

21:00-22:00

Bekoplaza

KONTZERTUA

Elektropottote.





Herederu usurbildarraren eta Irulegi andoaindarraren senitartekoak, ekitaldian. AIURRI

Juan Antonio Irulegi gogoan

Frankistek eraildako pertsonen omenez, ekitaldia antolatu zuen Usurbil 1936 elkarteak

Erredakzioa USURBIL

Usurbil 1936 elkarteak Irubideko parajearen (Usurbil) frankistek 1936an erail zituzten pertsonen aldeko omenaldia zuen, asteburuan. Testigantza ugarik adierazi izan dute beti jende mordoa erail eta lurperatu zutela leku horretantxe hain zuzen. Juan Antonio Irulegi andoaindarra aipatu izan da lurperatuetakobat izan daitekeela. Irailaren 18an 86 urte bete ziren indar frankistek Usurbil militarki hartu zutela, eta horrexegatik hautatu zuen egun oroigarria jartzeko. Andoainean, Leizotz auzoko

Aranaztegi baserrian jaio zen Juan Antonio Irulegi Ulanga. Maria Paulina Garmendia urnietarrarekin ezkondu zen, eta ondoren, biek Donostiako Alde Zaharrean Intza taberna ireki zuten. Bi seme-alaba eduki zituzten, Jesus Mari (1931) eta Miren Itziar (1935). EAJ alderdiko militantea zen, eta Donostiako hiriaren defentsan parte hartu zuen, Molaren tropak Gipuzkoa okupatzekotan zebiltzan garaian. Faxistek Donostia irailaren 13an sartu ostean atxilotu egin zuten. Ekitaldira Irulegiren sendia hurbildu zen.

**LEIZOTZEKO
ARANAZTEGI
BASERRIAN JAIO ZEN
JUAN ANTONIO
IRULEGI ULANGA**

**FAXISTEK DONOSTIA
IRAILAREN 13AN
SARTU OSTEAN
ATXILOTU ZUTEN
ANDOAINDARRA**

Andoaingo Udal Egutegia osatzeko deialdia argitaratu da

Andoaingo ingurumen naturala izango da 2023ko udal egutegiko argazki lehiaketako gaia

Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteotako joerari eutsiz, Andoaingo Udalak 2023ko egutegia herritarren partaidetzarekin osatuko du. Hilabete bakoitzeko argazki bana aukeratuko du epaimahaiak, eta irabazle bakoitzak 150 euroko saria jasoko du. Argazkiek argitaratu gabeak izan behar dute eta egi-

le bakoitzak gehienez 3 argazki aurkez ditzake. Bereizmen handiko argazki digital horizontala aurkeztu beharko da. Adobe RGBn JPGn formatuan. Aurkezteko epea: urriaren 1etik 31 arte izango da, www.andoain.eus webgunean. Saridunen berri azaroaren 15a baino lehen eman go dute.

**SANMIELETAN
KANTU BAZKARIA**

URNIETA

**TXARTELA SALGAI
IRAILAK 27ra ARTE**

BAZKARIA 28€

TXOZNA GUNEAN

Musikariak:
IHANOL KAMIO / AITOR ADEGA

Bernolariak:
AITOR MENDILIZTE / NEREA ELUSTONDO

Antolatzailea: KANTAZAUN TALDEA
Laguntzailea: URNIETAKO UDALA

URRIAK 2, IGANDEA. 14:00.

ZORION AGURRAK



**ANDOAIN
Zorionak Maddi!**
Aurtengoa 10 urte beteko dituzu eta primeran ospatuko dugu. Muxuak etxeko guztien partetik.



**ANDOAIN
Zorionak Aratz Korta!**
Irailaren 27an 5 urte beteko dituzu! Ondo-ondo pasa. Muxuak Aia eta etxeko guztiak.



**ANDOAIN
Zorionak Oihan!**
Ederto baten ospatu zure 4. urtebetetzea. Mosu asko etxeko danon partez!!!



**ANDOAIN
Zorionak Nahia**
Zure amatxoren kuadrilakoan partez!! Putz handia egin kandelari eta oso ondo pasa!!

MERKATU-TXIKIA

OSTALARITZA

Urnieta Idiazabal kaleko Iparralde tabernan zerbitzari bila ari dira, lan egun erdiz aritzeko. **667 265 569** (Marlenis).

IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingelesko klase partikularrik ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei eskolak etxean emateko. **650 34 11 08**

SALGAI

'Antiescaras' koltxoia salgai. **660 235 259**.

Etxabea salgai Andoainean, altuera handikoa. 47 m². Sukaldea eta komuna ditu. Uraren toma mangerarekin. **667 058 641**.

EROSI

Lursaila erosiko nuke Asteasu, Zizurkil, Larraul aldean. **671 31 68 63**.

**HOTEL
HK10
HOTELA**

Erreserbak:
943 33 73 57 edo
info@hotelk10.com

Terraza parrillarekin

Urriaren 1a eta 2a parrillaz gozaten azken asteburua

- Ostirala: 20:00-22:30
- Larunbata: 13:00-15:30 / 20:00-22:30
- Igandea: 13:00-15:30

**GORA URNIETA!
GORA SANMIELAK!**



Andoaingo zenbait kaltetu, Basteron ekainean egindako batzarrean. AIURRI

"Utz gaitzatela gurea den kapitala berreskuratzen"

ANA MENDIKUTE ETA JOXE MARI LAZKANO GEROAK KALTETUTAKO PLATAFORMA 1996an ADEGLK eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Geroa erakundea osatu zuten, metalaren sektorean pentsio osagarriak osatzeko asmoz

Xabier Lasa ANDOAIN

Horrela, hilero, langileek eta enpresek egindako diru ekarpenarekin, langileen pentsioei errenta bat eransteaz gain, ezintasunarekin, lan-istripuekin eta heriotzarekin lotutako egoerak babestea erabaki zen. Estatuan aitzindaria izan zen egitasmoa, eta egun, Gipuzkoako 20 lan-sektoreetara iritsi da Geroa, hots, hiru langiletik bat hartzen ditu kontuan. 2019ko abuztuan, Geroa Pentsioak-eko bazkide batzuk, erretiroa hartu ostean, Geroak Kaltetutakoen Plataforma eratu zuten. Basteron, joan den ekainean batzar jendetsua

(500 lagun) egin zuten, hainbat aldarrikapen eginez. Elkarretaratzea deitu dute Donostian, larunbat honetarako. Ana Mendikute andoainarra eta Joxe Mari Lazkano zarautzerra kaltetuen plataformako kideak dira. **Zergatik sortu zenuten plataformak?** **Joxe Mari Lazkano:** Geroa Pentsioak sortu izana langileontzat konkista handia izan zen. Baina gutxi gora behera 2017az geroztik erretiroa hartzen joan garen bazkide ugari ohartu gara baztertutak sentitzen garela. Izan ere, 45.120 euroko topea edo muga aplikatzen ari dira, eta zenbateko hori baino gehiago duten

langileak 190 euro inguruko errenta hartzera behartzen dituzte hogeitik gora urtez.

Ana Mendikute: Behin erretiroa hartuta, langile guztiek ezin dugula diru guztia aldi berean eskuratu ari gara salatzen. Geureak eta geure atzetik erretiroa hartzen joango direnen eskubi-deak defendatu nahi ditugu.

J.M.L.: Azken batean, estatutuak aldatzea eskatzen dugu, bazkide langile bakoitzak aukera izan dezan bere ekarpenak errenta edo kapital moduan erreskatatu ahal izateko, 45.120 eurotik beherako ekarpena egindako langileek egin dezaketzen duten bezala.

Alde horretatik, konparaziozko bidegabekeria ari dira ezartzen bazkide batzuen eta besteen artean. Izan ere, zein da Geroa guri esateko erretiroa nola gozatu behar dugun? Orain asko ez dela, Geroaren kudeatzailea den Virginia Oregik Madrilgo kongresuan zera adierazi zuen, ez zela komeni bazkideek kapitala berreskuratu zezaten, modu ezegokian erabil zezaketelako. Bada Geroako kudeatzaile nagusiari garbi esan nahi diogu ez dugula inork tutelatzerik nahi. Ez gara haurrak, eta geuk erabakiko dugu nola berreskuratu urtetan pilatzen joan garen diru hori.

Geroaren estatutuetan du oinarri muga jartzeak.

A.M.: Horrexegatik eskatzen dugu alda ditzaten. Denon ongizaterako alda badaitezke, zergatik ez egin hori? Izan ere, komeni izan zaien azkar asko aldatu izan dituzte estatutuak.

J.M.L.: Bazkideoi ez ziguten jakinarazi topearen arau hori ezarri zutenean 2000-2001ean. Egiazki, ilunkeriarekin funtzionatzen dute Geroako kudeatzaileek. Esaten zaigunez, bazkideek 44 ordezkari dauzkagu Geroan, baina gero saiatzen gara jakiten nortzuk diren horiek eta ez digute ezer zehazten, urteko batzarretan parte hartzen ere ez digute uzten. Hitz eta botoa ukatzen zaizkigu bazkideoi, azken batean. Irabazi asmorik gabeko entitatea izateko jaio zen, baina gaur egun, Euskadiko finantza-erakunde handienetakoa bilakatu da Geroa, "Euskorralitua" eratu dutelarik. 2.200tik gora milioi eurotako ondarea dauka, eta 200.000 bat bazkide gara, eta beraz, egin kontu hilero zenbateko dirutza biltzen den... Bada, inbertsio-funtsa, zor publikoa, Eusko Jaurlaritzarentzako maileguak..., edo dena delako formulak era-

biliz bidera dezatela Geroaren diru-funtsa, etekinak atera ditzatela, baina kapital hori geurea da eta eskubide osoa daukagu nahi dugun moduan berreskuratu dezagun.

Geroa erakundeko kide dira lau sindikatu. Horiekin egon zarete?

Isiltasuna da beraien erantzuna, edota argudiatzen dizuten gauza bakarra da estatutuak hala jartzen dutela eta ez ezin dela ezer egin. Ulertzen oso zaila den egoera bizi dugu, penagarria da! Geuk ordaintzen diegun Geroako kudeatzaileek ez dute gure ordezkariak diren abokatuekin hitz egin nahi.

Epaitegietan demandak jartzen hasi zarete, eta jada bi epaiketa burutu dira.

Bai, gure protesta kaleratzeaz gain gatazka bide judizialek eramatea beste alternatibarik ez zaigu geratzen. Bi epaiketa egin dira orain arte, eta gehiago etorriko dira atzetik, demanda ugari jarri baititugu Asufin Finantza Erabiltzaileen Elkarte abokatuen eskutik. Egia da gure aldarrikapenari bizkar eman diola lehenbiziko epaiak, baina deigarriak dira epaiketa horretan lekukoren batek adierazitako gezurrak. Epaiak epai, ez dugu etsiko, ziur gaude badirela epaileak gatazka modu justuago batean epaitzen jakingo dutenak.

Madrilgo abokatuengana jo duzue, arrazoi berezirik bai horretarako?

J.M.L.: Herrialdeko zenbait abokatuen bulegoetara jo dugu gu defendatzeko eskatuz, baina ezinezkoa egin zaigu. Ohartu gara Geroak eragiteko ahalmen handia daukala herrialdean. Horrexegatik jo behar izan dugu Gipuzkoaz kanpoko defentsaz-zerbitzu batengana. Oraingoz 1.200 bazkide kaltetu bildu gara ASUFIN finantza-erabiltzaileen elkartearen babespean.



Ana Mendikute eta Joxe Mari Lazkano, Geroak kaltetutakoen Plataformako kideak. AIURRI